.PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

“GAZTEARTEA”

EZKERRALDEAN
2020 / 2021

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gaztedi Bizkaia programaren helburuetako bat, gazteen parte-hartzearen esparruan, sorkuntza artistikoa sustatzea da, artista gazteen sustapenaren bidez eskualdeko sektore eta elementu dinamizatzaileari laguntza emateko. Esparru profesionalean sartzen lagundu nahi zaie, beren proposamenak eta sorkuntzak ezagutarazteko aukera eskainiz. Helburu horrekin sortu da "Gazte Artea Ezkerraldean" programa. Programa horren bidez, lau artistak beren obra erakutsiko dute udalerri guztietan, baldintza hauen arabera:

♦ GAZTEARTEA EZKERRALDEAN ekimenean 15 eta 29 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute eta Barakaldo, Portugalete, Santurtzi edo Sestaon egon beharko dute erroldatuta.

♦ Gazte Artea 2020/2021en edizio honetan parte hartu ahal izateko izen-emate epea maiatzaren 5ean hasi eta ekainaren 15ean amaituko da.

♦ Parte hartu nahi dutenek eskabide-fitxa bete beharko dute (2. eranskina), beren datu pertsonalekin eta arte-arloan egindako ibilbidearen deskribapen txiki batekin.

♦ Artista bakoitzak euskarri digitalean entregatuko ditu bere obren irudiak, bai eta fitxa teknikoa ere (3. eranskina). Fitxa horretan, obren ezaugarri teknikoak eta egileak obra bakoitzaren bidez transmititu nahi duenaren deskribapen txiki bat jasoko dira.

♦ Parte-hartzaile bakoitzeko gutxienez 3 lan aurkeztu ahal izango dira, eta gehienez bat erakusketa-espazioaren arabera. Gazteria Arlo bakoitzak bere udalerriko artista eta bere udalerrian erakusketa osatuko duten obrak aukeratuko ditu, aurkeztutako proposamenen kalitatea kontuan hartuta.
♦ Artistak erakusgai dauden obren titularra izan behar du, eta obra horietan ager daitezkeen irudiak erabiltzeko beharrezko baimena izan behar du.

♦ Gazte Artea Ezkerraldean programan parte hartzeko hautatutako artista gazteak 300,00 € jasoko ditu erakusketa-programan obra lagatzeagatik.

♦ Erakusketa kolektiboen zirkuituak hautatutako obra bakoitza estaliko duen aseguru bat izango du, gehienez 100,00 eurokoa, eta hala eskatzen duen edozein parte-hartzaileren eskura egongo da.

♦ Aukeratutako obrak udalerri bakoitzean jarriko dira, 1. eranskinean zehaztutako espazio eta ordutegietan. 2020ko urritik 2021eko urtarrilera arte egongo da indarrean Gazte Artea Ezkerraldean 2020/2021 erakusketa.

♦ Udalerri bakoitzeko erakusketa kolektiboek hiru aste iraungo dute, gutxi gorabehera.

♦ Artistak izango du lanak lehen erakusketa-gunera eramateko ardura, bai eta lanak azken erakusketa-gunetik jasotzekoa ere. Lekualdaketa beste pertsona baten esku utz daiteke, betiere erakundeari aldez aurretik jakinarazita. Gazte Artea Ezkerraldean erakundea arduratuko da udalerrien arteko lekualdaketaz..

♦ Udalerri bakoitzean erakusketa kolektiboa amaitu ondoren, egileek gehienez 15 eguneko epea izango dute lanak kentzeko. Epe hori igarota, haien gaineko edozein eskubideri uko egiten diotela ulertzen da.

♦ Parte-hartzaileek aukera emango diete udalerri bakoitzeko gazteria-arloei beren lanak katalogo

kolektibo batean iragartzeko, eta, horrez gain, erakusketaren informazioa zabaltzeko, egokitzat jotzen diren bitartekoak erabiliz, bai bitarteko fisikoak erabiliz, bai digitalak erabiliz.

♦ Datu pertsonalen babesaren eta eskubide digitalen bermearen arloan aplikatu beharreko araudia kontuan hartuta, Barakaldo, Portugalete, Santurtzi eta Sestaoko udalek jakinaraziko dute parte hartzen duten pertsonen datu pertsonalak udal-titulartasuneko fitxategi batean sartu eta tratatuko direla, honako ezaugarri hauekin:

Tratamenduaren arduraduna. Barakaldoko Udala IFZ: P4801700H, helbidea: Herriko Plaza 1. 48901 Barakaldo Bizkaia. Portugaleteko Udala, IFZ: P 4809100C, helbidea: Solar plaza, z. g. (Bizkaia), Santurtziko Udala, IFZ: 4809500D, helbidea: Avenida Murrieta 6. 48980 Santurtzi (Bizkaia) eta Sestaoko Udala, IFZ: P4809700J, helbidea: Kasko Plaza, s/n. 48910. Sestao (Bizkaia).

Tratamenduaren helburua. Gazte Artea Ezkerraldean 2020/2021 izeneko jarduera kudeatzea, Barakaldo, Portugalete, Santurtzi eta Sestaoko Udaleko Gazteria Zerbitzuek antolatua.

Tratamenduaren legitimazioa. Harreman juridikoak irauten duen bitartean gordeko ditugu datu pertsonalak, eta, harreman hori amaitzen denean, legezko betebeharrak betetzeko behar diren epeetan.

Datuen hartzaileak. Hala badagokio, datu pertsonalak Barakaldoko, Portugaleteko, Santurtziko eta Sestaoko Udaleko beste eremu batzuei jakinaraziko zaizkie.

Datuak kontserbatzeko epea. Harreman juridikoak irauten duen bitartean gordeko ditugu datu pertsonalak, eta, harreman hori amaitzen denean, legezko betebeharrak betetzeko behar diren epeetan.

Interesdunaren eskubideak datuak tratatzeari dagokionez. Datu pertsonalak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea, tratamendua mugatzea, aurka egitea edo eramangarritasuna eska dezakezu. Horretarako, idatziz bidali beharko duzu Barakaldoko Udalari, IFZ: P4801700H, helbidea: Herriko Plaza 1. 48901 Barakaldo Bizkaia. Portugaleteko Udalari, IFZ: P 4809100C; helbidea: Solar plaza, z. g. (Bizkaia), Santurtziko Udalari, IFZ: 4809500D, helbidea: Avenida Murrieta 6. 48980 Santurtzi (Bizkaia) eta Sestaoko Udalari, IFZ:P4809700J, helbidea: Kasko Plaza s/n. Sestao (Bizkaia).
48910.

Nolanahi ere, erreklamazioa aurkez dezakezu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan: Beato Tomás de Zumárraga 71, 3. Solairua, 01008- Vitoria – Gasteiz.

♦GAZTEARTEA EZKERRALDEAN programan parte hartzeak parte hartzeko baldintzak erabat onartzea dakar.

♦ Covid 19tik eratorritako egungo inguruabarrak eta etorkizunean izango duen bilakaera kontuan hartuta, komenigarria da erakundeak oinarri hauetan zehaztu ez den edozein gorabehera konpondu ahal izatea, bai eta, egoki iritziz gero, haietan argitaratutako edozein datu aldatzea ere, hura hobeto garatzeko.